



BASAURI

Udala • Ayuntamiento



**KONTU-HARTZAILETZAREN TXOSTENA:
BASAURIKO UDALAREN 2016EKO EKITALDIAREN
AURREKONTU-LIKIDAZIOA**

**INFORME DE INTERVENCIÓN SOBRE LA
LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DEL
AYUNTAMIENTO DE BASAURI CORRESPONDIENTE
AL EJERCICIO 2016**

1. Erantsitako likidazioa prestatzeko, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuetako 10/2003 Foru Arauaren VII. Kapituluan ezarritako irizpideak jarraitu dira. Epeari dagokionez, berriz, Aurrekontua Egikaritzeko Arauaren 42. artikulua xedatutakoa bete da.
2. **Gastu orokorretarako diruzaintzaren gerakina 20.673,13 euro da**, behin eragindako finantzazioari lotutako zatia kenduta. **Aurrekontuaren emaitza doitu, bestalde, (-)643.891,16 euro da**. Doikuntza egin da finantzaketako desbideratze positibo eta negatiboak aintzat hartuta; era berean, aurreko urteko diruzaintzaren gerakinaren kontura aurrezagututako obligazioak ere zenbatu dira.
3. Udal Korporazioa eratzen duten erakundearen aurrekontu bateratuaren likidazioak bete egiten ditu **aurrekontu-egonkortasun eta zorraren helburuak, eta gastu-araua** ere bai. Likidazio hori, gainera, bat dator Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoak, eta Bizkaiko Toki Erakundearen Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko 5/2013 Foru Arauak ezarritako baldintzekin.
4. Erantsitako aurrekontu-likidazioak egokiro jasotzen ditu kobratzeke dauden eskubideak, ordaintzeke dauden obligazioak, eta 2016ko abenduaren 31n zegoen diruzaintzako gerakina. Horiekin batera, data horretan amaitutako ekitaldi ekonomikoaren kreditu-gerakinak eta aurrekontuaren emaitza ere islatzen ditu.

10/2003 Foru Arauari jarraituta, erantsitako likidazioa, behin onetsita, Udalbatzari jakinaraziko zaio.

1. La liquidación adjunta se ha preparado de acuerdo con los criterios establecidos en el Capítulo VII de la Norma Foral 10/2003. Presupuestaria de las Entidades Locales del T.H. de Bizkaia, y dando cumplimiento, en cuanto al plazo, a lo previsto en el artículo 42 de la Norma de Ejecución Presupuestaria.
2. El Remanente de Tesorería para Gastos **Generales** asciende a **20.673,13 euros**, una vez descontada la porción sujeta a financiación afectada. El **Resultado Presupuestario Ajustado, por su parte, totaliza (-)643.891,16 euros**, importe ajustado por las desviaciones positivas y negativas de financiación, así como por las obligaciones reconocidas con cargo al Remanente de Tesorería del año anterior.
3. La liquidación del presupuesto del conjunto de entidades que forman la Corporación Local cumple con los **objetivos de estabilidad presupuestaria y de deuda**, así como con la **regla del gasto**, en los términos recogidos en la Ley Orgánica 2/2012, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, y en la Norma Foral 5/2013, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera de las Entidades Locales de Bizkaia.
4. La liquidación presupuestaria adjunta expresa adecuadamente los derechos pendientes de cobro, las obligaciones pendientes de pago y el remanente de tesorería al 31 de diciembre de 2016, así como los remanentes de crédito y el resultado presupuestario correspondientes al ejercicio económico finalizado en dicha fecha.

De conformidad con el art. 49 de la Norma Foral 10/2003, la liquidación adjunta, una vez aprobada, será comunicada al Pleno.

Basaurin, 2017eko otsailaren hogeian
Basauri, a veinte de febrero de 2017

Kontu-hartzailea
El Inteventor